



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

### DEBAGOIENeko ETXeko KONPOSTAJEAREN JARRAIPEN ETA AHOlkULARITZARAKo BIGARREN KANPAINAREN KONTRATAZIORAKo BALDINTZA TEKnIKoEN AGIRIA.

#### AURREKARIAK ETA HELBURU OROKORRA:

2005eko otsailaren 23an, Debagoieneko Mankomunitateak “Prebentziorako Ituna” sinatu zuen eta urte horretan, hain zuzen ere, etxeko konpostajea sustatu eta bultzatzeko lehenengo kanpaina burutu zuen. Harrezkero urtero kanpaina bat burutu izan da eta 2012. urtean, Debagoieneko Mankomunitateak etxeko konpostajearen erabiltzaile potentzialak aurkitzeko orain arte egindako kanpainarik handiena abiarazi zuen.

Lehenengo kanpainak egin zirenetik inongo jarraipenik ez zela egin edo erabiltzaileekin inongo kontakturik mantendu ez zela ikusirik, urte horretan hain zuzen ere, Debagoieneko Mankomunitateak Etxeko Konpostajearen Jarraipenerako Kanpaina Globala abian jarri zuen.

Hori horrela, dagoeneko esan dezakegu Debagoieneko Mankomunitatean 1.236 konpostagailu jarrita eta martxa egokian daudela, eta guztiak bisitatuak izan direla; hala eta guztiz ere, gure datuen arabera, badaude beste 492 konpostagailu bisitatu barik geratu direnak eta etengabe jasotzen dira ezarpen berriak egiteko interesa agertzen dutenen eskaerak.

Horregatik guztiagatik, Debagoieneko Mankomunitateak Etxeko Konpostajearen Jarraipen eta Aholkularitzarako Bigarren Kanpaina abian jartzea erabaki du, 2013an amaitutako Etxeko Konpostajearen Jarraipenaren Kanpainaren jarraipena izango dena. Bigarren Kanpaina honek ere, bi atal izatea aurreikusten da; alde batetik, konpostagailua 2-3 hilabete baino denbora gehiago jarrita daramatenak, baina jarraipena oraindik egin barik dauden kasuak, hau da, Etxeko Konpostajearen Jarraipenaren atalean sartuko genituenak (hor sartuko genituzke aipatu diren 492 konpostagailu horiek); eta bestetik, konpostagailua lortzeko behar diren pausu guztiak eman dituztenak, baina oraindik konpostagailua jarri barik edo jarri berri dauzkaten kasuak izango ziren Etxeko Konpostajearen Aholkularitza eta Jarraipen atalean sartuko liratekeenak. Horren harira, aipatzekoa da interes berezia izaten duten erabiltzaileak ere egoten direla eta, horientzat ere, aholkularitza programa espezifiko bat aurreikusten da Bigarren Kanpaina honetan.

Hori guztia kontuan izanda, baldintza-agiri honen arabera formalizatuko den kontratuaren helburua honako hau izango da: Debagoieneko Mankomunitatean ezarritako Etxeko Konpostajearen Jarraipen eta Aholkularitzarako Bigarren Kanpaina egitea; aipaturiko bi zatiak izango dituenak.

Bigarren Kanpaina hau ere Debagoieneko Mankomunitatea osatzen duten herri guztietan egingo da; hau da, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati.

## EGIN BEHARREKO LANEN XEHETASUNAK:

Etxeko Konpostajearen Jarraipen eta Aholkularitzarako Bigarren Kanpaina honen zeregin nagusiak, honako hauek dira:

- Jarraipen atalari dagozkionak:
  - Debagoieneko Mankomunitateko etxeko konpostajearen datuak eta informazioa eguneratu.
  - Banatutako konpostagailuen erabilera eta egoera lekuan bertan aztertu, eta modu pertsonalizatuan kasu bakoitzeko zalantzak eta arazoak tratatu, baloratu eta ekintza zuzentzaileak proposatu.
  - Datuak bildu eta datu-baseak eguneratu.
  - Lortutako datu kuantitatibo eta kualitatiboak aztertu.
  - Jarritako konpostagailu berrien detailezko kokapen kartografikoa egin, X,Y eta Z koordenatuen bitartez (UTM ETRS89).
  - Arreta iraunkorreko zerbitzua eman, kanpainako hartzaileek sor daitezkeen zalantzak argitu edo arazoak konpon ditzaten.
  - Udal zabor-bilketa tasa eroldarekin bateratu.
  - Autokonpostajearen bidez kudeatutako organikoaren kantitatea kalkulatu eta etxeko hondakinak kudeatzeko bide alternatibo honen eraginkortasunaren balorazioa egin.
  - Protokolo bat zehaztu banaturiko konpostagailuen aldizkako jarraipena egin ahal izateko, datuak eguneratzeko eta etxeko konpostajearen bidez kudeatzen den gai organikoaren kopurua kalkulatzeko.
  - Adierazleen proposamena eta horien korrelazio estatistikoa egin (orientazioa, hondakin mota, mantenimendua, ...), jakin ahal izateko zein adierazle behar diren kalitate oneko konposta lortzeko.
  - Jarraipen eta Aholkularitzarako Kanpainaren eta Arreta Zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna ebaluatu, ondorioak ateratzeko, sendotasunak eta ahultasunak antzemateko eta, behar izanez gero, zuzentzeko eta hobetzeko. Balorazioaren emaitzak datu-basean sistematizatu beharko dira, segimendu adierazleak berehala lortu ahal izateko.
- Aholkularitza eta Jarraipen atalari dagokionez, aurreko zereginei honako hauek gehituko genizkie:
  - Konpostagailua jarri gabe dauden kasuetan, jartzen lagundu eta konpostatzen ahalik eta modu egokienean hasteko aholkuak eman.
  - Konpostagailua jarri berri dauden kasuetan, ondo hasita dagoen aztertu, edozein kasutan, lehenengo urratsak ondo ematen hasteko aholkuak eman, sortu daitezkeen arazoak komentatu eta aztertu, eta prozesu guztia ahalik eta ondoen eramateko aholkuak eman.
  - Interes berezia izan dezaketen erabiltzaileentzat aholkularitza espezifikoa emateko ekintzak proposatu, prestatu eta burutu.

Aipaturiko Etxeko Konpostajearen Jarraipen eta Aholkularitzarako Bigarren Kanpainaren elementu zentrala, konpostagailuak jarri ondoren edo jarri behar direnean, erabiltzaileei egingo zaien bisita da. Bisita egin aurretik, telefonozko harremana izatea aurreikusten da, beti ere, ahalik eta bisita gehien egiteko eta ahalik eta informazio gehien lortzeko.

Aipaturiko harreman-bide horiek, bisita pertsonalizatuak batez ere, zalantzak argitzeko eta arazoak detektatzeko balioko dute orokorrean, eta gainera informazioa eta datuak emateko, aldeztu aurretik sortuta dagoen datu-basean sartu beharko direnak, aurreko urteetako ezarpen-kanpainetan jarritako konpostagailuetatik datozen datuekin batera.

Konpostagailua jarrita ez dagoenetan edo jarri berri dagoen kasuetan berriz, aipatutakoaz gain, hasierako pausuak modu sendoan finkatzen laguntzeko eta oinarritzko arauak modu praktikoan ikasteko ere balioko dute bisita hauek. Beti ere, erabiltzaileen inplikazioa areagotzeko eta konpostajea egiteari uzteko aukerak murrizteko asmoarekin.

Bururiko bisitatzaletzat jotzeko, beharrezko informazioa eta datuak lortu behar dira, nahiz eta horretarako, praktikan, beharrezkoa izan daitekeen bisita bat baino gehiago egitea.

Horrek guztiorrek, gai organikoa kudeatzeko era bakarra etxeko konpostajea den kasuetan, tresnak eman behar dizkigu beharrezko jarraipen eta kontrolerako, batez ere, horrelakoetan dagozkion hobariak zabor-tasan aplikatzean.

Konpostajea egiten dutenen artean, badaude oso inplikaturik dauden edo behar bereziak dituzten erabiltzaileak ere, eta horrelako kasuetan, konpostajeari buruzko informazio eta formazio espezifikoak eskertu edo eskatzen dute. Bigarren Kanpaina honetan planteatzen den Aholkularitza atalean, aurretik aipatutako moduko erabiltzaileak ere kontutan izatea aurreikusten da, baina kasu honetan aholkularitza espezifikoaren programa bat eskainiz.

Azkenik, Bigarren Kanpaina honetan planteatzen den beste ekintza bat bideo baten ekoizpena da. Konpostagailua jaso baino lehen erabiltzaile potentzialak egiten duten ikastaroaren edukia izango duen bideo bat. Ekintza berri honen helburua, ikastarora joan ezin diren kasuetan, formazio osagarri bezala erabili nahi diren guztietan, .... behar diren azalpen eta demostrazio guztiak ahalik eta modu didaktikoenean izatea.

Bigarren Kanpaina honetan bi lan mota ezberdindu dira: Lan Orokorrak (prezio finkoari dagozkionak) eta Lan Espezifikoak (aleko prezioei dagozkienak).

- Lan Orokorretan, besteak beste, gutxienez honako lan hauek sartuko dira: kanpaina planifikatzeko bilerak, ezarpen berrien informazioaren eta datuen biltzea, datu-baseak eguneratu eta, behar izanez gero, moldatu, emaitzen azterketa, adierazleak proposatu eta korrelazioa egin, balorazio txostenak, aldizkako jarraipena egin ahal izateko protokoloa diseinatu, udal zabor-biltzea tasa eroldarekin datu-baseen bateratze lanak, eta antzeko edozein bulego lan, lan orokor bezala uler daitekeena. Atal honetan sartuko lirateke etxean konpostatzen hasten ikasteko bideoaren ekoizpena eta horretarako egin behar diren lan guztiak eta aipatutako Aholkularitza Espezifikoaren proposatzen diren ekintza eta lan guztiak.

- Lan Espezifikoak, berriz, bi motatakoak izango dira:
  - Jarraipen harremana, bisita egin barik; hau da, harremanetan jarri, datuak eguneratu eta sartu, adierazleen kalkulua egin, eta harreman bakoitzari dagokion edozein lan, baina bisita egin gabe.
  - Jarraipen harremana bisita eginda; hau da, erabiltzaileekin harremanetan jarri, datuak eta informazioa eguneratu eta sartu, arazoak eta zalantzak tratatu eta argitu, ekintza zuzentzaileak proposatu, kokapen kartografikoa egin, adierazleen kalkulua egin eta harreman bakoitzari dagokion edozein lan, baina bisita eginda. Aurretik aipatu bezala, buruturiko bisitatzat jotzeko, beharrezko informazioa eta datu guztiak lortu behar dira, nahiz eta horretarako, praktikan, bisita bat baino gehiago beharrezkoa izan.

Kontaktatu behar den erabiltzaile bakoitzari eta jarrita dagoen konpostagailu bakoitzari dagokio Mankomunitateak emango dion kode bat, eta hori dena kanpaina honetan sortzen diren datu-base eta erregistro guztietan kontutan izan beharko du esleipendunak. Betiere, kanpaina behar bezala garatzen dela bermatzeko, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoarekin koordinazioa ezinbestekoa izan beharko da.

**EGINBIDEA.- Baldintza Agiri hau Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zuen, 2014ko irailaren 25ean egindako bilkuran.**

**Arrasaten, 2014ko irailaren 26an.  
IDAZKARIA**

**Izpta.: Belén Txintxurreta**